



HIRIAK ETA GIZARTE-BAZTERKETA: ETXERIK ETA BALIABIDE EKONOMIKO-RIK EZ DUTENEI ZER BITARTEKO ESKAINTZEN DIZKIETEN AZTERTU DUGU 18 HIRITAN

- Egoitza eta higiene arloko laguntza-zerbitzuak dira nagusi, lan eta osasun arloko gizarte-laguntzen gainetik
- CONSUMER EROSKI-k 18 hiritan egin duen azterketak ezaugarri bat utzi du agerian: udalek gizarte-zerbitzu asko eta askotarikoak eskaintzen dituzte

Udalek handitu egin dute gizarte-gastua behartsuenei laguntzeko, baina baliabideak eskas dira orain ere

P

obreziak bide egiten jarraitzen du, eta gero eta etxe gehiagotan jotzen du atea. Langabezia gora eta gora ari da, lan-baldintzak txartu eta txartu, eta hipotekek lehengo lekuan jarraitzen dute askorentzat, oso garesti. Caritasek eman dituen datuen arabera, 2008. urteko lehen sei hilabetean % 40 handitu ziren laguntza eskaerak. Ekonomiaren loreak hostoak galdu ahala, gizarte-bazterketaren sasiak hartzen ditu bazterrak (Espainian milioi eta erdi lagun bizi dira etxebizitza ere ez diren estalpeetan, eta 30.000 lagunek ez dute etxerik). Administrazio publikoak jabetu dira horretaz, eta baliabideak ugaritzeari ekin diote kalteak nolabait arindu nahian. Udalek, esaterako, nabarmen ugaritu dituzte diru atalak beharizan gehien dituztenei laguntzeko: Malagan, adibidez, hiru bider halakotu dituzte laguntzak bost urtean, eta Iruñean, Madrilen eta Zaragozan, bi bider. Gizarte-babeserako gastua BPGren % 20,9koa da Espainian, Europako batez bestekoa baino sei puntu txikiagoa, nahiz eta behartsu kopurua handiagoa den Espainian (% 20koa), Europan baino (% 16koa). Halaxe egiaztatu du CONSUMER EROSKI-k 18 hiriburutan egin duen azterketak (gizarte-bazterketaren aurka udalek zer ekimen daukaten ikusi nahi izan dugu). Legeak (7/85 izenekoak) zera dio, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalak behartuta daudela gizarte-laguntzak ematera.

Udalen pertsona baztertuei (etxegabeak, behin-behineko egoiliarak...) zer laguntza eta zerbitzu ematen dieten aztertu du CONSUMER EROSKI-k, 2005. urte amaieran argitaratu zuen txosten batean egin bezala. Honako hiri hauek hartu ditugu kontuan azterketa hau egiteko: A Coruña, Alacant, Bartzelona, Bilbo, Burgos, Donostia, Granada, Iruñea, Gasteiz, Kordoba, Madril, Malaga, Murtzia, Oviedo, Sevilla, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza. Galdetegiak bidali ditugu udaletara, eta udaletako gizarte sailen memorieta ageri diren datuak erabili ditugu. Udal gehienek erantzun diote gure eskarriari, hiruk izan ezik (behin eta berriz eskatu arren): Granada, Sevilla eta Kordoba. Granadak udal-aurrekontuen datuak baino ez dizkigu eman.

Udalen gizarte-zerbitzuak era askotakoak dira, eta zaila gertatu zaigu elkarrekin alderatzea. Zailtasuna zailtasun, Gizarte Gaietarako aurrekontuei erreparatuta, alde handiak antzeman ditugu hiritik hirira (ez da ahaztu behar etxegabeentzat ematen den laguntza esparru zabalagoko aurrekontu baten zati txiki bat baino ez dela, eta hor sartzen direla, beste hainbat gairi bideratzen dizkietenak ere: adinekoei, haurrei eta gazteei, familiei, emakumeei, gizarte-heziketari, garapen-laguntzari...). Bilbon eta Iruñean, Gizarte Ekintzako Alorrak eta Gizarte Ongizateko Alorrak 40 milioi euro baino gehiago kudeatu dituzte (45 milioi Bilbokoak eta 43 Iruñekoak), eta Valentziako Udalak, berriz, 31 milioi bideratu diru arlo horretara, nahiz eta Bilbok halako bi eduki biztanleak eta Iruñeak halako lau. Deigarria



da, halaber, Malagako eta Donostiako datuak alderatzea: Donostian halako hiru diru biztanleak Malagan, eta 27,6 milioi euro izan ditu 2009an Gizarte Ongizateko Alorrak, Donostiakoak baino ia bost milioi euro gutxiago. Madrilek eduki du aurrekonturik handiena: 54 milioi eurokoa izan da diru atala (etxegabeei, gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta etorkinei erantzuteko izaten da). Gasteiz dator ondoren, 53,2 milioi aurrekontuarekin. Diru gutxien, berriz, honako udal hauek jarri dute: Oviedokoak (8,2 milioi euro, 2005an baino nabarmen gutxiago, departamenduan egon diren aldaketen eraginez), Alacantekoak (ia 11 milioi euro, langileen gastuak sartu gabe), A Coruñaokoak (12 milioi euro baino gehiago, langileen gastuak kenduta), Granadakoak eta Kordobakoak (14 milioi euro baino gehiago biek).

2004ko aurrekontuarekin alderatzen badugu 2009koa, argi ikusten da gizarte laguntzen diru atalak nabarmen handitu direla. Igoerarik handiena Malagakoa izan da (hiru bider halakotu dute 2004ko aurrekontua gizarte-laguntzarako), eta Zaragozan, Madrilen eta Iruñean bikoiztu baino gehiago egin dute. Gainerako hirietan, % 21 eta 79 artean igo dira aurrekontuak, KPI baino askoz gehiago (% 9,4 igo da).

Etxegabeentzat zenbat ohe dituzten jakitea ere adierazgarria izaten da udal-laguntzei buruzko datuak ulertzeko. Oro har, hiria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ohe gehiago izaten ditu. Madrilen, esaterako, 1.246 ohe dituzte, Bartzelonan 948, eta Valentzian eta Murtzian, 500 inguru. Beste muturrean daude Donostia (40 leku ditu udal-egoitzak), Iruñea (54 leku edukiko ditu aurten jarriko duten egoitzak, etxegabeei laguntzeko zentro integralak) edo Valladolid (58 ohe). Gainerako hiriak 100 eta 200 oheren artean dabilta.

BIZIRIK IRAUTEN LAGUNTZEKO

Gizarte-laguntzen eremuan, zerbitzu mota batzuek lehenetasuna hartu dute beste batzuen aldean; informazioa, mantenua, lehen harrera, ostalua eta higieena ematen dutenak nagusitu dira, eta ez gizarteratzeko eta lan munduan barneratzeko zerbitzuak, heziketa edo formazio alorrekoak, edo osasun- eta psikologia-laguntza ematen dutenak.

Alde hori nabarmena da. Zerbitzu horietako asko Gobernu Kanpo Erakundeek eskaintzen dituzte (Caritasek, Gurutze Gorriak eta horien antzeko beste hainbat); hitzarmena eduki ohi dute administrazioarekin, eta diru laguntzen truke, edo materiala edo egoitza uztearen truke eman izan dute laguntza azken urteetan. Eskaria, ordea, asko handitu da (are gehiago aurten, krisiaren ondorioz), baina eskaintza ez neurri berean; ondorioz, gero eta boluntario gehiago behar izaten dira gizarte alorrean ari diren erakunde pribatu horiek beren lana egiteko.

POBREZIAREN AURPEGI BERRIAK

- Pobreziaren irudia aldatzen ari da. Urtebete pasatxoan, munduan sortu den ekonomia-krisiak handitu egin du pobrezia Espainian ere. **Atzeraldia hasi aurretik ere, aski erlatiboaren mugatik behera bizi zen Espainian;** hau da, bederatzi milioi lagun baino gehiago urtean 7.753,3 euroekin baino gutxiagorekin bizi ziren pertsona bakarreko etxeetan, eta urtean 16.282 euroekin baino gutxiagorekin bi helduk eta bi haurrek osatutako familietan.
- Orduko hartan, **adineko pertsonen, haurrei, emakumeei eta etorkinei eragiten ziren pobrezia**. Urtebeteren buruan, izugarri handitu da langabezia, eta asko urritu dira etxe askotako diru sarrerak. Gero eta jende gehiago bizi da baldintza ekonomiko txarretan, batik bat gazteak, eta ikasketa gutxi eta lan-prestakuntza apala duten pertsonak.
- **30 urtetik beherakoan artean, bikoiztu egin da langabezia tasa azken bi urteetan.** Jende horrek nekez eskura ditzake langabezi sariak, asko eta asko lehen aldiz lanean hasteko garaian daudelako edo lan-ibilbide motza egin dutelako. Arazo hori bereziki larria izan daiteke gurasoen etxetik atera berri diren gazteentzat.
- Ikasketa gutxien eta kontratu txarrenak dituen jendea ere gogor astindu du krisiak: **2009ko hirugarren hiruhilekoan,** goi mailako ikasketak dituztenekin alderatuta, **ikasketa gutxien daukatenen langabezia tasa bi halako izan da.**
- Caritasek ere sumatu du gauzak aldatu direla, eta laguntza eskatzera joaten diren pertsonak ez direla lehen joaten ziren berberak. **Bakarrik bizi diren emakumeak lehen baino gehiago joaten dira,** familia aurrera atera behar eta lana eta etxea ezin bateratuz dabilzanak; **40 urtetik gorako emakume etorkinek ere gero eta maizago eskatzen dute laguntza,** lehen aldiz lan bila ari direnek (senarra langabezian duten emakumeak izaten dira, oro har); **prestakuntza gutxi duten gizonak ere ugaritzen ari dira eskatzaileen artean,** berriki lanik gabe geratu direnak (eraikuntzatik eta ostalaritzatik datoz, eta lan-baimena duten etorkinak dira asko); eta **20 eta 40 urte bitarteko familia gazteak ere agertzen dira,** haur txikiekin.





GIZARTE-JANTOKIAK*

HIRIA	Jantoki kopurua	Lekuak	Zerbitzuak	Prezioa (eurotan)	Gosari/askari kopurua	Bazkari kopurua	Afari kopurua
A Coruña	1 Udal-jantokia 1 Itundua	66 menu egunero	Bazkaria	Ez digute esan	0	24.090	0 ⁽¹⁾
Alacant	1 Integrazio-/ Harrera-zentroa ⁽²⁾	90	Gosaria, bazkaria, askaria eta afaria	Doakoa	318.280 280 zerbitzu eskaini dituzte guztira (gosaria, bazkaria, askaria eta afaria)		
Bartzelona	3 Udal-jantoki ⁽³⁾ 2 Itundu	942	Bazkaria eta afaria (bi zentroetako batean soilik)	Doakoa	0	339.573 guztira	
Bilbo	3	646 menu egunero	Bazkaria eta afaria	Ez digute esan	0	191.990	43.800
Burgos	3 Itundu	Aldatu egiten da	Gosaria, bazkaria eta afaria	Doakoa	12.113 gosari	18.208	18.286
Donostia	1 Gizarte-harrerako udal-zentroa	Ez digute esan	Gosaria, bazkaria eta afaria	Ez digute esan	10.084 gosari	9.246	10.876
Gasteiz	1 Itundua	400	Bazkaria eta afaria	Doakoa	0	31.815	31.255
Granada	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan
Iruñea	Ez dago udal jantokirik (aurki edukiko dute Zentro Integralean), baina badituzte zenbait ekimen: udal aterpetxean gosaria eta afaria eskaintzen diete erabiltzaileei, eta abenduaren 1etik martxoaren 31ra, askariak banatzen dituzte, "kafea elkarrekin" izeneko ekimenean. Gainera, muturreko egoeretan janari-txartelak banatzen dituzte						
Kordoba	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan
Madril	12 Itundu	Ez digute esan	Bazkaria, askaria eta afaria	Doakoa	830 ogitarteko	1.470	390
Malaga	Ez digute esan	200	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan
Murtzia	1 Itundua	300	Bazkaria eta afaria	Doakoa	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan
Oviedo	1 Itundua	Ez digute esan	Bazkaria eta afaria	Doakoa	0	74.502 guztira	
Sevilla	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan	Ez digute esan
Valentzia	3 Erkidego mailakoak 3 Pribatu	700	Gosaria, bazkaria eta afaria	Doakoa	38.325 gosari	184.808	38.325
Valladolid	1 Udal-jantokia	150	Bazkaria eta afaria	Doakoa	0	36.519	36.519 Afari hotz, eramateko
Zaragoza	1 Udal-aterpetxea ⁽⁴⁾ 2 Pribatu	85-170 (aterpetxean soilik)	Gosaria, bazkaria eta afaria	Doakoa	103.640 zerbitzu eskaini dituzte guztira (gosaria, bazkaria eta afaria, udal aterpetxean)		

*Datu ofizialak. Iturria: Udalak.

(1) A Coruñan ez dute ematen afaririk, baina erabiltzaileari aukera ematen diote onzi bat eraman eta janariz bete dezan gauerako. (2) Alacanten, laguntza ematen diete hiru erakunderi, gizarte-jantokiei lotuta dagoen lana egiten dutelako. (3) Bartzelonan, hor ageri diren bost horiez gain, aterpetxeetan eta ostatu hartzeko zentroetan ere badituzte jantokiak. (4) Udal-aterpetxean, han ostatu hartuta daudenentzat izaten dira bazkariak, baina gosaritan bikoiztu egiten dute txanda.

GIZARTE-JANTOKIAK

Gizarte-jantokiak erabiltzen dituzten pertsonak ez dira izaten gizarteak baztertu dituenak soilik. Jantoki horietara joaten diren askok eta askok badute euren etxea, baina arazo ekonomiko larriak pairatzen ari dira (atzeraldi ekonomikoaren erruz), eta jango badute, horietara joan beste aukerarik ez zaie geratzen. Jantoki horietako gehienak ongintza erakundeek, GKEen eta fundazio partikularren esku egon ohi dira. Diru laguntza publikoak jasotzen dituzte, hitzarmen ekonomikoak egiten dituzte udalekin edo udalarenak diren tokiak uzten dizkiete euren jarduera aurrera eramateko. Guk aztertu ditugun jantoki guztiak doakoa izan dira erabiltzaileentzat. Gainera, hiririk gehienetan ez dute jarri inolako baldintzarik jantoki horietara sartu eta otordua egiteko. Madrilen hamabi jantoki dituzte, eta bakarra, aldiz, Donostian, Gasteizen, Murtzian, Oviedon eta Valladoliden. Leku gehien, berriz, Bartzelonan eskaintzen ditu, 942, hain zuzen (beste hainbat hiri 50 eta 170 artean dabilta, Gasteizen 400 daude eta Murtzian 300). Jantoki gehienetan bazkaria eta afaria ematen dute, eta bitik batean menua aukeratu daiteke medikuak debekuren bat jarri diolako erabiltzaileari edo erlijio arrazoiak direla medio. Urte guztian egon ohi dira irekita jantokiak hiririk gehienetan, eta jantokia ixten duten lekuetan ere (abuztuan edo asteburuetan, adibidez), zerbitzua ez da eteten: janari-txartelak edo janari prestatua ematen dituzte.

LAN MUNDUAN BARNERATZEKO
TAILERRAK

Gizartetik baztertuta dauden pertsonak gizarteratu daitezten eta lan-merkatuan barneratu, tailerrak, ikastaroak eta programak eskaintzen dituzte udalek. Erakundeekin, beste administrazio publiko batzuekin (erkidegokoak, batik bat) eta GKEekin elkarlanean antolatzen dituzte ekimen horiek. Ikasgaien artean, honako hauek nabarmendu ohi dira: lana bilatzeko edo lanbide egokietara jotzeko teknikak, lanbide jakinetan aritzeko ezagutzak, lanbide-heziketako arlo jakinetakoak, heziketa-tailerrak (hizkuntzak etorkinentzat, alfabetatze-eskolak helduentzat...) edo autoestimua hobetzeko bitartekoak.

LAGUNTZA EKONOMIKO ZUZENAK

Hainbat ekimen eta programa erabiltzen dituzte udalek laguntza ekonomikoak emateko. Erkidego bakoitzak bere araudia du, eta bera erara izendatzen ditu, baina, nagusiki, gizarteratzeko gutxieneko errentaren bidez eta premiazko laguntza ekonomikoaren bidez ematen dituzte udalik gehienek. **Gizarteratzeko gutxieneko errenta edo oinarritzko errenta** deitzen dena laguntza ekonomikoa izaten da, eta hainbatez behin ematen dituzte udalek, aski baliabide ekonomiko ez duten familia-unitateek bizirik irauteko behar dituzten >

BESTELAKO GIZARTE-BALIABIDEAK
ETXEGABEENTZAT

Behar gehien dituztenei ematen zaizkien laguntzak ez dira mugatzen gizarte-jantokietara, harrera-egoitzetara, oinarritzko errentara edo gizarte-larrialdietarako laguntzetara. Beste hainbat bitarteko ere jartzen dituzte jendearen eskura:

1. EKIPAMENDUA

→ **Gaua igarotzeko zentroak:** muturreko gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonak hartzen dituzte. Egoitza horietan inolako baldintzarik bete gabe igaro daiteke gaua (burokrazia-betebeharrik gabe, identifikatu beharrik gabe, eta abar), nahiz eta egoitzako arauak bete beharrekoak diren: besteak beste, drogarik ez hartzea, edo bortizkeriarik ez erabiltzea egoitzako pertsonen eta ekipamenduen aurka. Zenbaitetan, lolekua ez ezik, mediku-arreta, arropa, higiene-zerbitzua eta jakiak ere ematen dizkiete.

→ **Pisu zainduak edo gizarte-larrialdietakoak:** familiak errazago gizarteratzea da horien helburua. Ohikoa izaten da gizarte eta heziketa arloko laguntza jasotzea. Baliabiderik ez duten pertsonen etxebizitza duina edukitzeko aukera ematen diete pisu horiek.

→ **Informazio eta orientazio zentroak:** udalerrian zer gizarte-baliabide dauden jakinarazten diete gizarte-beharren bat daukaten pertsonen, eta horien inguruko aholkuak ematen dizkiete. Laguntzak kudeatzeaz eta bideratzeaz ere arduratzen dira, eta gizarteratzeko proiektuak ere egiten dituzte.

→ **Larrialdi-zerbitzu/talde mugikorra:** kalean sor daitezkeen gizarte-larrialdiak antzemateko eta laguntza emateko taldea da, gizon-emakumez osatua; etxe gabe dauden pertsonak edo eskean ari direnak aurkitzea izaten da horien lana, jende kokapenak antzematea, eta abar. Jende hori gizarteratzen saiatzea da horien funtzio nagusia.

2. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

→ **Alokatzeko laguntzak:** etxebizitza duinik ez duten edo ordaindu ezin duten familiei ematen zaizkien laguntzak dira. Alokairua ordaintzen diete aldi batez, eta etxebizitza duin bat eskuratzeko baliabideak eskaintzen dizkiete.

→ **Baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen hileta-zerbitzuak ordaindu ahal izateko laguntzak:** baliabide ekonomikorik ez daukaten pertsonen eman zaizkien hileta-zerbitzuak ordaintzeko laguntzak dira; pertsona horiek ez dute izaten aseguruirik eta senitartekorik ere ez gastu horiek ordaintzeko.

oinarrizko gastuei aurre egiteko (beste ezein laguntzarik jasotzen ez dutenez izaten dira, langabezia sairik edo Gizarte Segurantzaren laguntzarik ez dutenez). **Gizarte-larrialdietarako laguntzak** ere gizarte-bazterketari aurre egiteko izaten dira, baina ez dituzte ematen maiztasun jakinarekin edo hainbatez behin. Oinarrizko jakiak erosteko ematen dituzte, jantzi ahal izateko, etxebizitza zaintzeko, heziketarako, sistema publikoaren barne ez dagoen osasun-laguntzarako, oinarrizko beharrei erantzutekoan lehendik egin diren zorrei erantzute, eta abar. Laguntza horiek jaso ahal izateko, oro har, eskatzailea adin nagusikoa izan dadila eskatzen dute udalek eta gutxienez urtebetez egon dadila udalerrian erroldatuta; horrez gain, beste irizpide eta neurgailu batzuk ere erabiltzen dituzte laguntza zenbatekoa izango den erabakitzeke.

Gizarte-ekintzako jarduerak egiten dituzten GKEak ere laguntzen dituzte diruz udalek. Luzea da hartzaileen zerrenda, baina udal gehienek aipatzen dituzte Caritas eta Gurutze Gorria, ijtoen kolektiboa laguntzeko erakundeak, fundazioak eta erlijio kongregazioak.

UDAL-ATERPETXEAK ETA BESTELAKO EGOITZAK

Udalerrri gehienetako aterpetxeak pribatuak dira, baina hitzarmena egin dute udalek eta horiek kudeatzen dituzten erakundeek (erlijio kongregazioak dira gehienak). Eskaria etengabe handitzen ari dela ikusita,



egoitzak, pisuak, apartamendu zainduak edo ostatuak egokitu behar izan dituzte udalek baliabiderik eta etxerik ez duten pertsonen emateko. Madrilek dauka zerbitzu osatuena udal-egoitzatan: zortzi harre-ra-zentro, zazpi zentro baliabiderik ez duten etorkinentzat eta 30 pisu inguru etxerik eta baliabiderik ez dutenez (horrez gain, 50 ohe inguru eskaintzen dituzte Madrilgo ostatuetan, lankidetzaren bidez). Bartzelona dator ondotik (11 udal-egoitza dauka) eta Bilbo gero (7 gune kudeatzen ditu tokiko administrazioak). Udalek, egoitzak ez ezik, bonoak edo txartelak ere eskaintzen dizkiete baliabiderik ez duten pertsonen ostatuetan lo egin dezaten (hitzarmenak egiten dituzte horiekin). Laguntza-zerbitzu horiek urteko egun guztietan egon ohi dira zabalik.

Higiene-zerbitzua ere ematen dute udalek. Aterpetxeetan bertan izaten da batzuetan, eta horretarako berariaz prestatuta dauden eraikinetan besteetan. Bartzelonan, Bilbon, Madrilen, Valentzian, Iruñean eta Gasteizen, esaterako, dutxak eta komun publikoak dauzkaten etxeak jartzen dituzte jendearen eskura. Leku guztietan doakoa da zerbitzu hori (Madrilen 0,15 euro eskatzen dizkiote erabiltzaileari, eta esku-zapia eta xaboia eraman ditzala, baina hori ere ez daukanari, ez diote eragozpenik jartzen).

Hilean hiru egun eta astebete artean egin ditzakete erabiltzaileek ostatu hartuta, baina bakoitzaren arabera izaten da hori. Ez da gauza bera hirira iritsi berri den norbait izatea, egun batzuen buruan joateko asmotan dena, edo gizarteratzeko edo lan-munduan barneratzeko prozesu bete-betean dagoen norbait izatea, edo osasun arazoengatik egonaldia luzatu behar duen norbait izatea. Alacanten, Bilbon, Madrilen, Valentzian eta Gasteizen, Gizarte Zerbitzuetako arduradunek erabakitzen dute zenbateko egonaldia egingo duen bakoitzak. 2008an, Madrilen eskaini zituzten leku gehien (horrek ez du esan nahi han hartu zituztela pertsona gehien): 300.000 baino gehiago.

Neguko egunik hotzenak iristen direnean, udal batzuek bikoiztu egiten dituzte zentro horietako lekuak (Alacant, Bartzelona, Iruñea edo Valladolid), eta beste batzuek eremu bereziak egokitzen dituzte (hotz garaiako aterpetxeak), etxegabeek kalean lo egin beharrik izan ez dezaten (Bilbo, Bartzelona, Donostia, Madril, Valentzia eta Zaragoza).

Zenbait aterpethek baldintza batzuk jartzen dizkiete erabiltzaileei: 18 urte baino gehiago edukitzea (adina-beak gurasoek edo babesle batek lagunduta egon behar dute), nortasun agiriak aldean eramatea, baliabide ekonomikorik ez izatea, bere kabuz moldatzeko gai izatea, gizarteratzeko edo lan-munduan barneratzeko prozesu bat abiatzea, bertako araudia errespetatzea, alkoholik eta drogarik ez hartzea, eta jarrera oldarkorrik ez agertzea, ez egoitza horietako arduradun eta langileekin, ez han bizi den beste inorekin. //



GIZARTE GAIETARAKO AURREKONTUA*

HIRIA	Sailaren izena	Aurrekontua 2009 (eurotan)	Aurrekontua 2008 (eurotan)	Aurrekontua 2004 (eurotan)	Bilakaera 2008-2009 (%)	Bilakaera 2004-2009 (%)
A Coruña	Gizarte Zerbitzuetako Alorra	12.115.267 ⁽¹⁾	12.373.038	9.996.000	% -2	% 21
Alacant	Gizarte Ekintzako Zinegotzi-Bulegoa	10.753.000 ⁽¹⁾	10.523.364 ⁽¹⁾	--	% 2	--
Bartzelona	Gizarte Ekintzarako eta Hiritarrentzako Alorra	Ez digute esan	Ez digute esan	21.105.240	Ez digute esan	Ez digute esan
Bilbo	Gizarte Ekintzako Alorra	45.060.699	41.629.223	29.579.192	% 8	% 52
Burgos	Gizarte Ekintza, Gazteria eta Berdintasun Bulegoa	24.698.597	22.479.400 ⁽²⁾	18.665.683	% 10	% 32
Donostia	Gizarte Ongizateko Zuzendaritza	32.228.274	29.667.199	18.021.116	% 9	% 79
Gasteiz	Gizarte Esku-hartzeko Saila	53.203.975 ⁽⁴⁾	48.161.315 ⁽⁴⁾	34.230.467	% 10	% 55
Granada	Familia, Gizarte Ongizate eta Aukera Berdintasunerako Zinegotzi-Bulegoa	14.399.607	13.697.482	8.043.235	% 5	% 79
Iruñea	Gizarte Ongizateko Alorra	43.000.000	38.605.908	19 eta 20 milioi artean	% 11	% 115
Kordoba	Gizarte Ongizateko Ordezkaritza	14.839.696	16.084.664	8.777.355	% -8	% 69
Madril	Familia eta Gizarte Zerbitzuetako Alorra	54.041.415 ⁽²⁾	52.686.669 ⁽²⁾	24.807.876 ⁽²⁾	% 3	% 118
Malaga	Gizarte Ongizateko Alorra	27.645.735	17.023.702	9.365.364	% 62	% 195
Murtzia	Gizarte Zerbitzuetako Alorra	Ez digute esan	Ez digute esan	13.445.346	Ez digute esan	Ez digute esan
Oviedo	Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzi-Bulegoa	8.200.000	8.300.000	14.038.298 ⁽³⁾	% -1	% -42
Sevilla	Gizarte Ongizateko Alorra	48.641.216	37.387.786	18.021.116	% 30	% 170
Valentzia	Gizarte Ongizate eta Integrazio Alorra	30.981.634	23.564.985	17.787.850	% 31	% 74
Valladolid	Gizarte Ekintzako Zerbitzua	23.226.528	18.807.302	14.774.100	% 23	% 57
Zaragoza	Gizarte Ekintzako Alorra	48.375.253	32.375.854	20.835.013	% 49	% 132

*Datu ofizialak. Iturria: Udalak.

(1) Langileen gastuak ez daude hor sartuta. (2) Madrilen, etxegabeek, gizarte-zerbitzuei, gizarte-larrialdiei eta etorkinei erantzuteko soilik da aurrekontu hori. (3) Oviedon etorkinentzako arreta-zerbitzua ere atal horren barruan zegoen 2004ko aurrekontuan, baina geroztik sail berria ireki dute etorkinez arduratzeko, eta 2008ko eta 2009ko aurrekontuetan, beste atal batean ageri da diru hori, horregatik ematen du emaitza hori. (4) Gasteizen, 2009ko aurrekontua hasierako da, eta 2008koak, berriz, egiaz gastatu dituna biltzen du (aurrekontu gauzatua da).